Plan Estratégico 2* 11/3/04 19:03 Página 2



**www.donostiafutura.net**

Plan Estrategikoa
Donostia - San Sebastián

Plan Estratégico 2* 11/3/04 19:04 Página 3



# estrategia

## donostia - san sebastián

nº0 - martxoa · marzo 2004

## aurkibidea sumario martxoa 2004 marzo

**1.** ARGITALDARIA EDITORIAL **2.** BA AL DAKIZU.... NON GAUDE? ¿SABÍAS QUÉ...? ¿DÓNDE ESTAMOS? **3.** KLASE POLITIKOAREN ARABERAKO... PLAN ESTRATEGIKOA EL PLAN ESTRATÉGICO SEGÚN... LA CLASE POLÍTICA **4.** KALITATEAREN HIRIA CIUDAD DE CALIDAD – *BARTOMEU MARÍ* **5.** KREATIBITATEA ETA BERRIKUNTZAREN HIRIA CIUDAD DE LA CREATIVIDAD Y LA INNOVACIÓN – MANUEL CENDOYA – *JUAN JOSÉ GOÑI ZABALA* **6.** ENPRESA BERRITZAILEA EMPRESA INNOVADORA **7.** PERTSONEN HIRIA CIUDAD DE LAS PERSONAS-COHESIONADA – ELKARRIZKETA ENTREVISTA: *SANTIAGO MORALES* **8.** LOTURA EGOKIAK DITUEN HIRIA CIUDAD RELACIONADA – JOSU BENAITO – JOSÉ A. ARRATE **9.** DONOSTIAKO PLAN ESTRATEGIKOAK WEB ORRIA HOBETU DU. EL PLAN ESTRATÉGICO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN MEJORA SU PÁGINA WEB.

Plan Estratégico 2* 11/3/04 19:04 Página 4




**Argitalpena / Edición:**

*Plan Estratégico Donostia-San Sebastián*
*c/ Camino nº 2 bajo*
*20004 Donostia-San Sebastián*
*Tf.: 943 42 80 86*
*estrategia@donostiafutura.net*

**Lege gordailua / Depósito legal:**

*SS-1112/03*

**Diseinua / Diseño:**
*Alambre Estudio Gráfico*

*En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal (L.O.P.D.) le reiteramos nuestro compromiso de uso confidencial de sus datos, de conformidad con lo dispuesto en la mencionada legislación. En el caso de que no desee recibir este boletín, o bien quiera ejercer los derechos de acceso, rectificación o cancelación de los datos, rogamos nos lo comuniquen a la siguiente dirección.*

*Plan Estratégico Donostia-San Sebastián*
*c/ Camino nº 2 bajo*
*20004 Donostia-San Sebastián*
*Tf.: 943 42 80 86 • Fax: 943 42 44 06*
*estrategia@donostiafutura.net*

*Argitarapen honen harpidetza dohainik egin nahi baduzu, zalantzarik ez izan eta dei iezaguzu.*

*Si desea suscribirse gratuitamente a esta publicación no dude en contactar con nosotros.*

# ARGITALDARIA EDITORIAL

*Gure paperezko lehen aldizkariak ale honekin ekin dio bere bideari. Hausnarketa prozesuan parte hartu dutenekin harremanetan jartzeko, agirien kudeaketan, buletin elektronikoetan eta abarretan orain arte bide digitala erabili ohi dugu.*

*Udal politikarien adierazpenekin hasi dugu ale hau, hots, gure hiriko proiektu handiak bideratuko dituen politikari buruzko azalpenarekin. Planeko gai erabakigarriei buruzko elkarrizketek eta iritziek osatzen dute ale hau. Aldatzen ari den hiriaren ideia islatzea da helburu nagusia. Orain arte Turismoarekin eta Kulturarekin lotu den kalitate handiko Donostia, Zientziaren, Sormenaren eta Berrikun-tzaren hiri bilakatu nahi da. Bere izaera tradizionala alde batera utzi gabe, abangoardiako alorretan, kultura sormenean eta Zientzian aurrera egin nahi duen hiria da gurea.*

*Adostasunean oinarrituta Donostiak estrategia bat zehaztu du eta agintearen paradigma berrian erreferente bilakatzeko bokazioa du. Orain hasi dugun mendeak bide berriak dakartza berekin. Sormena, biozientziak, nanoteknologiak...bezalako hitzek balore aberastasun handia duen eta solidarioa eta orekatua den lurralde batekin egiten dute bat.*

*Gizarte donostiar berria kosmopolitagoa izango da, gure kultura aberastasuna munduarekin lotuko dugu, gurea denetik abiatuta gaur egungo kultura dimentsio berri bat sortzea izango da helburua. Zientzia, kultura, gizarte, kultura arteko... proiektuen faktoria bilakatuko da Donostia.*

*Horretarako, erronka funtsezkoetakoa indarkeriarekin amaitzea eta Donostia Bakearen esplorazioan erreferente bilakatzea izango da.*

*Aldizkari honek argia ikusten duenean Kontseilu Orokorrak onartuak izango ditu 2010 urte arteko Donostiako proiektu estrategiko handiak. Lana ez da hor amaitzen, gure ingurune aldakorra kontuan hartuta, Donostiako oinarrizko proiektuak identifikatu eta sustatzeko garaian arreta handia jartzen jarraitu behar dugu, beti ere, gizartearen adostasunean oinarriturik egon behar dute eta hori kontuan hartu behar dute instituzio eta erakunde publiko eta pribatuek. Donostiak zehaztu du bere bidea, denoi dagokigu laguntzea helburua gauza dadin. Desadostasunak egon egongo dira eta beharrezkoak dira bide egokia zein den erabakitzeko, baina, inoiz ez dute batasuna hautsi behar, hori izango baita Plan Estrategikoaren, Donostiako Estrategiaren aktibo garrantzitsuena. Adostasunez hartutako apustuek jende asko jadanik barneratzen hasia zegoen "loti ederra"-ren irudia desegingo dute. Donostiak etorkizun oparoa du bere aurrean.*

*Con este primer número inicia su andadura nuestra primera revista en papel. Hasta ahora hemos venido utilizando la vía digital tanto en nuestra relación con los participantes en el proceso de reflexión, como en la gestión documental, boletines electrónicos, etc.*

*Iniciamos este número con intervenciones de los políticos municipales como cauce de expresión de la política sobre los grandes proyectos de nuestra Ciudad. Completa la revista una serie de entrevistas y opiniones sobre temas cruciales del Plan. El objetivo es trasladar la visión de una ciudad que cambia. Desde una Donostia de calidad, asociada comúnmente a Turismo y Cultura, a una ciudad de la Ciencia, la Creatividad y la Innovación. Una ciudad que equilibra su sentir tradicional con su progresivo liderazgo en los sectores de vanguardia en la producción cultural y la Ciencia.*

*Donostia ha perfilado una estrategia desde el consenso y tiene vocación de convertirse en referente en el nuevo paradigma de la gobernanza. El siglo que comienza indica caminos que vamos a tener que recorrer. Palabras como creatividad, biociencias, nanotecnologías... se conjugan con un territorio rico en valores, solidario, equilibrado...*

*La nueva sociedad donostiarra será más cosmopolita, enlazando nuestra riqueza cultural con el mundo, para crear desde lo propio una nueva dimensión cultural contemporánea. Donostia se convierte en una factoría de proyectos científicos, culturales, sociales, interculturales...*

*Para ello, uno de los retos fundamentales es desterrar la violencia y convertir San Sebastián en el referente en la exploración de la Paz.*

*Cuando esta revista sale a la luz, el Consejo General habrá aprobado los grandes proyectos estratégicos de Donostia-San Sebastián hasta el año 2010. No es una relación cerrada, ya que debemos seguir vigilantes a la hora de identificar e impulsar los proyectos clave de Donostia teniendo en cuenta nuestro entorno cambiante, pero sí son el fruto de un gran consenso social que debe ser tenido en cuenta por las instituciones y entidades públicas y privadas. San Sebastián ha establecido su rumbo, a todos nos corresponde remar para que el barco llegue a buen puerto. Las discrepancias legítimas y necesarias, deben contribuir a que el rumbo sea el adecuado, pero no deben romper una unidad de acción que será, sin duda, el mayor activo del Plan Estratégico, de la Estrategia de Donostia. Las apuestas realizadas desde una decisión compartida terminarán con esa imagen de "bella durmiente" que había comenzado a calar en muchas personas. San Sebastián se reinventa desde el futuro.*

## Ba al dakizu...
## sabías qué....

MANIFESTA 5

EUROPEAN BIENNIAL OF CONTEMPORARY ART
donostia-san sebastian /spain/ 11 june 04 // 30 sept 04

Manifesta Europako Arte Garaikidearen Bienala Donostian egingo da, 2004ko ekainaren 11tik irailaren 30era bitartean.

Manifesta, hain justu, arte garaikidearen proiektu ibiltaria da, bi urtean behin Europako hiri batek bere baitan hartzen duena. Hala, Bienala nazioarteko artista, kultur eragile, idazle, museo-pentsalari eta Europako arte zentro nahiz kultur erakundeen arteko trukea eragiten duen gertakaria da.

Donostiak, beraz, munta handiko Europako kultur gertakari honen bosgarren edizioa hartuko du.

*Manifesta, la Bienal Europea de Arte Contemporáneo, se celebrará en San Sebastián del 11 de junio al 30 de septiembre de 2004*

*Manifesta es un proyecto itinerante de arte contemporáneo que tiene lugar en una ciudad diferente de Europa cada dos años. La Bienal se ha convertido en un acontecimiento de ámbito internacional que provoca el intercambio entre artistas, agentes culturales, escritores y pensadores de museos, centros de arte e instituciones culturales de toda Europa.*

*Donostia acoge la quinta edición de este evento cultural europeo de gran magnitud.*

## non gaude?
## dónde estamos?

- Abenduaren 18an Plan Estrategikoko Batzorde Sustatzailearen bilera izan zen. Bertan, Batzorde Betearazleak aldez aurretik egindako trakzio proiektuen proposamena aurkeztu zen. Ekitaldian Donostia eta Donostialdeko 60 entitate eta pertsona ezagunetik gora izan ziren.

- 2004ko urtarrilean, ostera, behin betiko onartu da Donostiako Plan Estrategikoa. Dagoeneko martxan daude 2010era bitartean abian jarriko diren trakzio proiektuak, eta banan-banan aurkeztuko dira datozen hilabeteetan.

- *El pasado 18 de Diciembre tuvo lugar una reunión de la Comisión Promotora del Plan Estratégico. En la sesión se presentó la propuesta de proyectos tractores elaborada previamente por la Comisión Ejecutiva. Al acto asistieron más de sesenta entidades y personalidades de Donostia y Donostialdea.*

- *En Enero de 2004 se ha aprobado definitivamente el Plan Estratégico de Donostia-San Sebastián. Ya están en marcha los proyectos tractores de la ciudad hasta el 2010 y se irán presentando uno a uno en los próximos meses.*

# DONOSTIAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ONARTUTA

# APROBADO EL PLAN ESTRATÉGICO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Donostiak adostasunean oinarrituta estrategiaren hausnarketa prozesua amaitu du.

*Donostia ha finalizado el proceso de reflexión estratégica desde el consenso.*

## ZIENTZIAREN ETA BERRIKUNTZAREN HIRIA (SORMENA ETA BERRIKUNTZA)

• **Donostimedia.** Ikus-entzunezko alorra garatzearen aldeko apustua. Prestakuntzan, inkubazioan eta multimedia alorreko proiektuen garapenean eta enpresa berrietan oinarrituko den dinamizazio programa bat. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, Miramongo Teknologia Parkea, Enpresa Berritzaileen Zentroa eta Zinealdea (Oarsoaldea) funtsezko guneak dira irudiaren hiria sustatzeko. Ez dugu ahaztu behar Europako jaialdirik garrantzitsuenetako baten egoitza dela gure hiria.

• **Biopolo.** Etorkizuneko aukeretako bat Osasunarekin loturiko Teknologiak dira. Horien eraginez Gipuzkoako industriaren ohiko alorrak eralda daitezke eta alor horretan esperientzia berriak garatzen ari direnak susta ditzake, hau da, teknologia sozialak (Matia Institutu Gerontologikoa, Inasmet, Gureak, ….). Donostian ez ezik Europako zati handi batean ere hasi berria den alor horren sustapena ahalbidetuko digun i+G+B zentro bat sortzeak garatzeko bidean den espezializazio alor horren hazkundea dakar berekin . Gainera, alor horretako ikerketaren aldeko apustuari loturik daude bioteknologia eta biomedikuntza alorrak, zein, parke teknologikoaren ondoan kokatuta dagoen Euskadiko ospitale zentro handienean garatzen diren.

• **Zientzia eta Teknologia Berriak garatzeko programa.** Ikerketa eta Berrikuntza sustatzeko ekimenak Donostian fokalizatze aldera neurriak ezarriko dira (Teknologia Parkea, Ezagutza eta Harreman Sistemaren Garapena, Ekintzaile Plana...)

## KALITATEAREN HIRIA

• **Donostia, Kulturaren hiria**: Kultura alorrean estrategia bat ezartze aldera (Azpiegiturak, Kudeaketa, Eskaintza eta eskaera) ekimenak garatuko dira. Horretarako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroko, Victoria Eugenia Antzokiko (Arte Eszenikoen Zentroa) eta San Telmo museoko proiektuak garatuko dira. Proiektu horiek abian jartzeko batetik Euskal Kultura eta Euskararen egungo ikuspegia eskaini beharko dute eta bestetik hizkuntza eta kultura aniztasunera irekita dagoen hiriaren ideia islatu beharko dute.

Kultura edukiontzi izatetik Donostia Kulturaren Faktoria, sormenaren hiri, bilakatzea da helburua.

• **Donostia Merkataritza Zentroa**. Kalitatezko merkataritzarekin loturik dagoen hiria Merkataritza Zentro handi bat bilakatu nahi da. Auzoetako zentro handien eta merkataritza fluxu handiagoak atzematen dituen Merkataritza Zentro Handi Ireki baten artean oreka aurkitzea ezinbestekoa da. Hipermerkatuen aro honetan lehiakor izateko kudeaketa modelo egokiak izan beharko ditu merkataritza zentro ireki horrek.

• **Donostia Turismoa**. Hiriko alor tradizional hau egituratzea da xedea, XXI. mendera egokitu behar da eta Donostian hain garrantzitsuak diren

## CIUDAD DE LA CIENCIA Y LA INNOVACIÓN (CREATIVIDAD E INNOVACIÓN)

• ***Donostimedia.*** *Una apuesta por desarrollar el sector audiovisual en el más amplio sentido. Un programa de dinamización basado en la formación, la incubación y el apoyo a la implantación de empresas y proyectos del sector multimedia. El Centro Internacional de Cultura Contemporánea, el Parque Tecnológico de Miramón, el Centro de Empresas Innovadoras y Zinealdea (Oarsoaldea) son espacios que deben posibilitar el lanzamiento de una auténtica Ciudad de la Imagen en la sede de unos de los Festivales más importantes de Europa.*

• ***Biopolo.*** *Las Tecnologías asociadas a la Salud son una de las grandes oportunidades de futuro que pueden suponer la transformación de sectores tradicionales de la industria guipuzcoana y el lanzamiento de quienes están desarrollando experiencias innovadoras en este ámbito, las denominadas tecnologías sociales (Instituto Gerontológico Matía, Inasmet, Gureak, ….). La creación de un Centro de I+D+i que permita el lanzamiento de un sector incipiente, no sólo en Donostia, sino en buena parte de Europa, es una apuesta por el crecimiento de un área de especialización emergente como éste. Además, y unido a esta apuesta por el desarrollo de la investigación en este ámbito, se encuentra el hecho del sector de las biotecnologías y más especialmente de la Biomedicina en el entorno del Parque Tecnológico que alberga al mayor centro hospitalario de Euskadi.*

• ***Programa de desarrollo de la Ciencia y las Nuevas Tecnologías.*** *Se establecen una serie de medidas dirigidas a focalizar en Donostia actividades de fomento de la Investigación y la Innovación (Parque Tecnológico, Desarrollo del Sistema Relacional y del Conocimiento, Plan Emprender, …)*

## CIUDAD DE LA CALIDAD

• ***Donostia Ciudad de la Cultura:*** *Se trata de desarrollar acciones dirigidas a establecer una estrategia en cultura (Infraestructuras, Gestión, oferta y demanda), mediante el desarrollo de los proyectos del Centro Internacional de Cultura Contemporánea (CICC), el Teatro Victoria Eugenia (Centro de Artes Escénicas) y el Museo San Telmo. La oportunidad de la puesta en marcha de estos proyectos reside en su complementación con una visión contemporánea de la Cultura Vasca y del Euskara con la perspectiva de una Ciudad abierta a la convivencia de las lenguas y las culturas.*
*Frente al modelo de Cultura-Contenedor, Cultura-Contenido, convertir Donostia en una Factoría Cultural, en la capital de la creatividad.*

• ***Donostia Centro Comercial.*** *Transformar una ciudad asociada al comercio de calidad en un gran Centro Comercial buscando el equilibrio entre las centralidades comerciales de los barrios y el atractivo de una gran Centro Comercial Abierto que capta flujos comerciales más amplios, con modelos de gestión que compitan eficazmente en la era de los hipermercados.*

Urgul, Akuarioa edo Igeldo bezalako eremuak berrasmatu egin behar dira eta horretarako Kirol Portua bezalako proiektu berriak abian jarriko dira. Eskaintza koordinatzeko eta marketing estrategia zehatz baten bidez Donostiaren irudi bateratua emateko egitura indartsu bat beharrezkoa da.

• **Donostia Natura**. Balorea emateaz gain elkarren artean lotu behar diren eremu naturalen babesa eta suspertzea: Urumea ibaiko parkea, Ulia, Kristina Enea, Satrustegi, Urgul, Miramon. Hiriaren inguruko beste leku batzuekin lotu behar dira: Lau Haizeta, Artikutza, e.a.

• **Hiri administrazioa modernizatzeko plana**. Donostian berrikuntza sustatzeak ekimen garrantzitsuak eskatzen ditu administrazio publikoari dagokionez. Hiri administrazioak antolamendu eraginkorra bilatze aldera ekimen garrantzitsuak proposatzen ditu, hala nola, Hiritarren arretarako Zerbitzu Integrala, Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak erabiliz deszentralizazioa eta XXI. mendeko administrazio publikora egoki-tzeko berrantolaketaren garapena.

## PERTSONEN HIRIA

• **Auzoak birsortzeko eta suspertzeko programa**. Ekintza plan baten egituraketa auzoak pixkanaka birsortu eta suspertze aldera. Epe motzeko, ertaineko eta luzeko ekimenak bilduko ditu aipatu programak (zerbitzu eta merkataritza gune berriak, mugikortasuna, e.a).

•**Etxebizitza Plana**. Hiriko arazo sozial garrantzitsuenari irtenbidea ematea da xedea. Etxebizitzen prezioari aurre egiteko ahalik eta lasterren hirigintza operazioak jarriko dira abian, hala nola, babes ofizialeko etxebizitza asko, bereziki alokairuan jartzeko. Instituzioen arteko ahalik eta lankidetza handiena lortzea ezinbestekoa.

• **Donostia, Bakearen kulturarako eremua** . Giza Eskubideen Institutu baten sorrera eta Baloreak sustatzea helburu duen ekimen programa (tolerantzia, begirunea, solidaritatea, gizalegea, dibertsitatea...) dira Donostiak erreferente izan behar duen proiektu bateko erreferenteak.



• ***San Sebastián Turismo***. *Estructurar un sector tradicional en la Ciudad, adaptándolo al siglo XXI y reinventar espacios significativos de Donostia como Urgull, Aquarium o Igeldo, incorporando nuevos proyectos como un Puerto Deportivo. Todo ello con una estructura potente que permita coordinar la oferta y lanzar una imagen unificada de San Sebastián mediante una estrategia de marketing claramente definida.*

• ***Donostia Natura***. *Una apuesta por proteger y revitalizar espacios naturales que deben ser valorizados y conectados entre sí: Parque Fluvial del Urumea, Ulía, Cristina Enea, Satrustegi, Urgull, Miramón, y conectándolos con otros lugares del entorno metropolitano como Lau Haizeta, Artikutza, etc.*

• ***Plan para la Modernización de la Administración Local***. *Potenciar la innovación en Donostia requiere actuaciones ejemplares en el ámbito de la administración pública. La administración local, en la búsqueda de una organización eficaz y eficiente, plantea una serie de acciones con un fuerte calado como un Servicio Integral de Atención Ciudadana, la descentralización utilizando, entre otros, las Tecnologías de la Información y la Comunicación, y desarrollando una reorganización para adaptarse a una administración pública del siglo XXI.*

## CIUDAD DE LAS PERSONAS

• ***Programa para la Regeneración y Revitalización de los Barrios.*** *La estructuración de un plan de acción que permita una actuación escalonada y planificada de regeneración y revitalización de los barrios diseñando actuación a corto, medio y largo plazo (nuevas centralidades en servicios, comercio, movilidad, etc.).*

• ***Plan de Choque para la Vivienda.*** *Se trata de paliar el problema social más importante de la ciudad, como es el precio de la vivienda, abordando sin dilación operaciones urbanísticas de envergadura que incluyan un elevado número de VPO, especialmente en régimen de alquiler, y logrando la máxima colaboración interinstitucional.*

• ***San Sebastián, un espacio para la cultura de la Paz***. *La creación de un Instituto de Derechos Humanos y un programa de actividades locales dirigidos a impulsar la Educación en Valores (tolerancia, respeto, solidaridad, civismo, diversidad, …) son los referentes en un proyecto en el que Donostia puede y debe ser referente.*

• ***Donostia Ciudad Abierta***. *Se plantean acciones dirigidas a desarrollar un Plan para la Inmigración que cumpla tres funciones: Favorecer la integración en un marco de cohesión social, Defender y difundir los valores de la diversidad y la convivencia, y trabajar ésta última en la prevención de las situaciones de conflicto. La inmigración, necesaria y oportuna para el fomento de la interculturalidad.*

• ***Programa de Asistencia a mayores y Fomento de la relación intergeneracional***. *Acciones dirigidas establecer una estrategia interinstitucional que permita resolver uno de los problemas sociales más importantes de los próximos años. Se plantean acciones que permitan: la adecuación de la vivienda, mejora de la accesibilidad, adecuación de los servicios domiciliarios y los comunitarios, y, finalmente, la potenciación de los espacios intergeneracionales no segregados.*

• **Donostia Hiri irekia**. Inmigrazio alorrean Plan bat garatzeko balioko duten ekimenak proposatu dira. Hiru funtzio bete beharko ditu: kohesio sozialaren markoan integrazioa babestu, dibertsitatea eta elkarbizitza bezalako baloreak hedatu eta elkarbizitza balorea landu istiluak ekidite aldera. Inmigrazioa funtsezkoa eta beharrezkoa da kultura aniztasuna sustatzeko.

• **Adinekoak zaintzeko programa eta belaunaldien arteko harremanak sustatzea**. Datozen urteotako arazo sozial garrantzitsuenetako bat konpontzea ahalbidetuko duen instituzioen arteko estrategia bat ezartze aldera ekintzak sustatzea. Etxebizitzen egokitzapena, irismena hobetzea, etxeetako eta gizarteko zerbitzuen egokitzapena eta azkenik banandu gabeko belaunaldien arteko eremuen sustapena ahalbidetuko duten ekintzak proposatu dira.

## LOTURA EGOKIAK DITUEN HIRIA

• **Donostialdea, Sartzea erraza den hiria**. Ibilbide motzean eta luzean loturak konponduko dituzten akzioak integratzea da helburua: garraio partzuergoaren sorrera, trenbide sarearen hobekuntza eta autobus zerbitzuarekin lotura. Hori guztia mugikortasun sistema jasangarri baten baitan. Ez dira alde batera utziko urrutiko lekuetara iristeko aukera emango duten proiektuak; aireportua eta inguruko hirien sistemekin lotzeko aukera emango digun abiadura handiko sarea (Miarritze, Loiu-Bilbo, Gasteiz..).

• **Pasaiako badiaren eraberritzea.** Zalantzarik gabe Donostia aldeko eta Gipuzkoako hirigintza eraldaketa proiektu handiena da, kontsensu instituzional eta sozial garrantzitsua eskatzen du eta horretan Donostiak zer esan handia du. Badiaren etorkizunaren gaineko hausnarketak Donostia aldeko herrien partaidetza eta instituzioen arteko elkarlana eskatzen du.

• **Europako Sareetan txertatuz Hiria internazionaltzeko estrategiak**. Donostia, zalantzarik gabe, izaera europar handiena duen euskal hiria da. Bere izaera irekia sustatu egin behar da Donostia aldea hirurehun mila biztanleko hiri eraginkor bat bilakatuko duen barne sare eraginkor bat sustatuz. Sare handiagoetarako sarrera ere sustatuko da Eurohiriaren bidez eta Europako eta munduko antzeko hiriekin lotuko gaituzten beste batzuen bidez.

• **Informazioaren Gizartea garatzeko plana**. Informazioaren. Euskadi, Informazioaren Gizartea, e-gipuzkoa edo e-donostia.net bezalako programak euskarri egokiak izan behar dute Donostia IKTen erabileran abangoardian kokatzeko.

## GOI-MAILAKO GASTRONOMIA ESKOLA- NUTRIZIOAREN IKERKETA INSTITUTUA.

Donostia aldeak biztanleko Mitxelin izar portzentaje handiena du eta ez du jakin nazioartean duen posizio hori ikuspegi ezberdinetatik aukera handiak dituen alor baten sorreran erabiltzen (berrikuntza, topaketa, ikerketa, elikadura, kudeaketa, teknologia e.a.). Donostia Sukaldaritzaren nazioarteko unibertsitate bilakatze aldera indarrak batzeko garaia da.



## CIUDAD RELACIONADA

• ***Donostialdea, Ciudad accesible***. *El objetivo es integrar acciones que resuelven las conexiones en el corto y el largo recorrido, desde la creación del Consorcio de Transportes y las actuaciones ligadas a la mejora de la red ferroviaria conectada con el servicio de buses, e integrada en un sistema de movilidad sostenible, hasta los proyectos relevantes para la accesibilidad con los lugares más lejanos a través de la conexión aeroportuaria y la red de alta velocidad en el sistema de ciudades del entorno (Biarritz, Loiu-Bilbao, Gasteiz, …)*

• ***Regeneración de la Bahía de Pasaia***. *Es, sin duda, el proyecto de transformación urbana más importante de Donostialdea y de Gipuzkoa y requiere de un consenso institucional y social relevante en el que Donostia tiene mucho que decir. La apertura de una reflexión sobre el futuro de la bahía debe contar con la participación de los municipios de Donostialdea y del resto de instituciones en un marco de colaboración significativo.*

• ***Estrategia de Internacionalización de la Ciudad mediante su integración en Redes Europeas***. *Donostia es, seguramente, la ciudad vasca con un perfil más europeo. Su carácter abierto debe reforzarse mediante la potenciación de una red interna eficaz que convierta Donostialdea en una ciudad efectiva de más de trescientos mil habitantes, y la integración en redes más amplias, desde la Euro-ciudad a otras que conecten con ciudades similares de Europa y del mundo.*

• ***Plan para el Desarrollo de la Sociedad de la Información***. *Los programas como Euskadi y la Sociedad de la Información, el e-gipuzkoa o el e-donostia.net deben ser el adecuado soporte para colocar San Sebastián en la vanguardia en la utilización de las TIC en un marco de auténtica cohesión social.*

## ESCUELA SUPERIOR DE GASTRONOMÍA-INSTITUTO DE INVESTIGACIÓN DE LA NUTRICIÓN.

*Donostialdea alberga el mayor porcentaje de habitantes por estrella michelín y, sin embargo, no ha sabido transformar esta posición internacional en la creación de un sector de conocimiento que tiene enormes posibilidades desde distintas perspectivas (Innovación, encuentro, investigación, alimentación, gestión, tecnología, etc.). es la hora de aunar esfuerzos por hacer posible que Donostia se convierta en la Universidad Internacional de la Gastronomía.*

Plan Estratégico 2* 11/3/04 19:04 Página 10

# KLASE POLITIKOAREN ARABERAKO... PLAN ESTRATEGIKOA
# EL PLAN ESTRATÉGICO SEGÚN... LA CLASE POLÍTICA



Dario Garrido

Odón Elorza - Donostiako alkatea

*Odón Elorza - Alcalde de San Sebastián*

PARTE HARTZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

Udaleko gobernuak hurrengo hamar urteetako Plan Estrategikoa abian jarri zuenetik hiria hausnarketa prozesu batean murgildurik dago. Eta bokazio parte hartzaileari jarraituz, gizarte, ekonomi eta politika mailako alor ezberdinak eztabaidan, hausnarketan eta idazketan murgildu dituzten Planeko lanek beste proiektu batzuk gelditu ez dituztela nabarmentzea garrantzitsua da. Aitzitik, lan horrek aurrera egiten duen neurrian diagnosirako elementuak eta jarduera proposamenak sortu dira eta horiek lagungarri izan ditu Udaleko gobernuak bere zereginetan.

Aldi berean, hiritarren mugimenduaren laguntzarekin, Plan Estrategikoarekin elkartzen diren beste instrumentu batzuk garatzen aritu gara, esate baterako, 21 Agenda lokala, Hirigintza Plan Orokorraren berrikuspena, Turismo Kalitate Plana, Eskuragarritasun Plana, Kultura ondasunaren Plana eta Kultura Plan zuzentzailea. Horien guztien arteko sinergia, Donostiaren gainean hausnarketa egiteko eta proposamenak egiteko gaitasuna, ariketa ezin hobea da gure hiria berreraikitzeko.

Donostiako alkate naizen aldetik ezinbestekoa deritzot gure jarduna gidatuko duen Plan Estrategiko bat izateari. Eta pozik nago orain arte egin dugunarekin, hiria indartsuago, kultuago, solidarioago eta eramangarriagoa lortzeko, donostiarren bizitza kalitatea hobetzeko eta Donostia aldearekin eta Gipuzkoarekin harremanak sendotzeko aurrerapausoak ematen ari garelako.

Oraindik partaidetza prozesuaren azken fasea egiteke dago, baina pozik egon gaitezke proiektu estrategikoen definiziora gerturatzen gaituzten irizpideak baditugulako. BOEn txoke operazioak egingo ditugu, Urumeako autobideko eta Loiolako Geltoki intermodaleko komunikazio eta garraio azpiegiturak modernizatu egin nahi ditugu, Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo eta Tabakalerako Kultura Zentroa bezalako kultura ekipamenduak sustatu nahi ditugu, ikus-entzunezko eta osasun arloko enpresa berritzaileen alde egingo dugu apustu, merkataritza alorra berritu eta modernizatu egin nahi dugu eta hiria humanoago eta erakargarriago bilakatu duten mugikortasun eta eramangarritasun estrategiekin jarraitzeko asmoa dugu.

Gaur, behin baino gehiago, hiria berreraikitzeko ideiak bere bidea hasi duela esan dezakegu. Izan ere, alor publiko eta pribatuko esfortzuak bateratzen ari gara, herria tartean sartzen ari gara eta kohesio soziala indartzeko harreman sarea eraikitzen ari gara. Hiria denon artean eraiki behar dugulako, hiria isolaturik dagoen irla bat ez dela eta horrexegatik helburuak konurbaziora ere hedatu behar direlako ideiak transmitituz partaidetza sustatzea Plan Estrategikoaren printzipio garrantzitsuenetakoa da.

Espero dut azkeneko idazketak eta plan estrategikoaren onarpenak Donostiaren interesak, kohesio soziala eta dinamismo ekonomikoa, defendatzeko beharrezkoa den batasuna errazteko politika konpartituen markoa osatzea.

*UN PLAN ESTRATÉGICO PARTICIPATIVO*

*Desde que el Gobierno Municipal decidió poner en marcha el encargo de un nuevo Plan Estratégico para los próximos diez años, la ciudad vive un proceso de reflexión. Y es importante resaltar que los trabajos de la elaboración de un Plan que con vocación participativa ha integrado en el debate, la reflexión y la redacción a distintos sectores sociales, económicos y políticos, no han supuesto la paralización de otros proyectos hasta la definitiva aprobación del Plan Estratégico. Más bien al contrario, a medida que avanzaba ese trabajo, surgían elementos de diagnóstico y propuestas de actuación que han servido de guía para la acción del Gobierno Municipal.*

*En este mismo periodo venimos elaborando con el movimiento ciudadano, otros instrumentos que se conjugan con el Plan Estratégico. Me refiero a la Agenda 21 Local, la revisión del Plan General de Urbanismo, el Plan de Calidad Turístico, el Plan de Accesibilidad, el Plan de Patrimonio Cultural y el Plan Director Cultural. La sinergia entre todos ellos, la capacidad de reflexionar sobre San Sebastián y de formular propuestas, constituye un ejercicio inmejorable para la refundación de nuestra ciudad.*

*Como Alcalde de San Sebastián considero imprescindible contar con un Plan Estratégico que guíe nuestra actuación. Y me siento satisfecho del camino recorrido, porque estamos avanzando por hacer la ciudad más fuerte, culta, solidaria y sostenible, en elevar la calidad de vida de los donostiarras y en una mayor colaboración con Donostialdea y el resto de Gipuzkoa.*

*Aún queda la última fase del proceso participativo, pero podemos felicitarnos todos por disponer de criterios para aproximarnos a la definición de los proyectos estratégicos. Queremos actuar con operaciones de choque en VPO, modernizar nuestras infraestructuras de comunicación y transportes con la autovía del Urumea y la Estación Intermodal en Riberas de Loiola, el impulso de equipamientos culturales como el Teatro Victoria Eugenia, San Telmo, el Centro de Cultura en Tabacalera, la apuesta por las empresas innovadoras en el ámbito de la salud y en el sector audiovisual, la renovación y modernización del sector comercial, o proseguir con las estrategias de movilidad y sostenibilidad que hagan la ciudad más humana y atractiva.*

*Hoy más que nunca la idea de repensar y refundar la ciudad se ha abierto paso. Porque estamos uniendo los esfuerzos del sector público y el privado, involucrando a la sociedad civil y creando un entramado de relaciones que fortalecen la cohesión social. Estimular la participación transmitiendo la idea de que la ciudad la hacemos entre todos, de que la ciudad no es una isla aislada del territorio y que ello implica extender los objetivos al ámbito de la conurbación, son también principios importantes que presiden la elaboración del Plan Estratégico.*

*Confío en que su redacción final y posterior aprobación constituyan el marco de políticas compartidas que faciliten la necesaria unidad para defender los intereses de San Sebastián; esto es, su cohesión social y su dinamismo económico.*

## Román Sudupe - EAJ-EA
*Román Sudupe - PNV-EA*

Datozen urteetako hiria definituko duen Plan Estrategikoa partaidetza sozial handiarekin egiten ari da. Orain da garaia gure hiriaren etorkizunean pentsatzeko eta hausnarketa apriorismorik gabe eta alderdien interesak alde batera utzita egin behar dugu. Lehen aipatu dugun partaidetzak, hiriko pertsona eta entitate garrantzitsuren partaidetzak, hori bermatu behar du. Momentu egokian gaude, izan ere, hiriarentzat eta Gipuzkoarentzat garrantzitsu diren proiektu asko errealitate bilakatu dira edota abian daude. Horietako batzuk, hala nola Kursaala, errealitate ukaezinak dira; beste batzuk oso hurbil daude, hala nola, unibertsitate karrera berriak edo teknologi elkartegiaren handitzea.

Baina, inork ez du zalantzan jartzen hiriak ikuspegi, objektibo eta bultzada berriak behar dituela etorkizunean donostiarrek hemen bizitzeko eta hirian edo inguruan lan egiteko aukera izan dezaten.

Bere ezaugarri propioengatik, zoritxarrez industria tradizionala, geratzen dena, desagertu egingo da eta esfortzu handia egin beharko dugu balio erantsi handiko enpresek bere lekua har dezaten. Instituzioen arteko koordinazio publiko-pribatua, osasun, unibertsitate, lanbide heziketa edo zentro teknologikoen alorretakoa, sendotu egin beharko da alor ezberdinetan egiten diren proiektu eta ikerketak enpresa ekimen eta proiektu bilaka daitezen.

Merkataritza eta ostalaritza ere, hiriaren bi ardatz nagusiak, oso garrantzitsuak izango dira, donostiarren beharrei erantzun beharko diete Donostia bere edertasun naturalarengatik ez ezik dinamika ekonomiko-sozialarengatik ere erakargarri izan dadin.

Dinamika horiek guztiak, ezbairik gabe, sendotasunez bideratu beharko diren kultura eta aisialdi proiektu berriak eskatzen dituzte.

Halaber, mota ezberdinetako mugikortasunak beste faktore garrantzitsuenetako bat izan behar du hiria kolapsa ez dadin.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi etxebizitzaren arazoa. Eskaeraren presioak etxebizitzen prezioa esponentzialki igotzen jarrai ez dezan eta inflexiorik izan ez dezagun, administrazio publikoak etxebizitza babestuetatik haratago doazen ekimenak jarri beharko ditu abian.

Hiriko auzorik degradatuen eraberritzea ere indar handiagoz, ahal bada, bultzatzen jarraitu beharko dugu.

Laburbilduz, milaka elementu hartu behar ditugu kontuan Donostiak etorkizunean denok nahi dugun kalitatea eta ongizatea eskaintzen jarraitzea nahi badugu.

*Con una nutrida participación social y política, se está redactando el Plan Estratégico que definirá la ciudad para los próximos años. Es, en definitiva, el momento de pensar en el futuro de nuestra ciudad y la reflexión hay que realizarla sin apriorismos y sin intereses partidarios. La participación, a la que nos referimos, de personas y entidades relevantes de la ciudad deben garantizar que así lo sea. Es el momento adecuado para ello, toda vez que importantes proyectos para la ciudad y para el conjunto de Gipuzkoa son ya una realidad y/o están en marcha. Algunas de elllas, como el Kursaal, realidades incontestables; otras, pertenecientes al horizonte próximo, como las nuevas carreras universitarias o la ampliación del parque tecnológico.*

*Pero sobre todo, lo que nadie discute es que la ciudad está necesitada de nuevas visiones, nuevos objetivos, nuevos impulsos para asegurar que, también en el futuro, los /las donostiarras puedan tener la posibilidad real de vivir aquí y trabajar en la ciudad o en su entorno más inmediato.*

*Por sus propias características, lo poco que queda de la industria tradicional se nos escapará irremediablemente y se van a tener que multiplicar esfuerzos para que las empresas de gran valor añadido puedan tomar el relevo. La coordinación interinstitucional pública-privada, concretada en los ámbitos sanitarios o universitario, en el campo de la enseñanza profesional o en el de los centros tecnológicos tendrá que intensificarse para que distintos proyectos e investigaciones que se realizan en distintos campos puedan convertirse en iniciativas y proyectos empresariales.*

*El comercio y la hostelería, dos de los ejes estratégicos de la ciudad, tendrán que seguir dando respuesta para que Donostia sea también atractiva por su dinámica económico-social y no exclusivamente por su belleza natural.*

*Todas estas dinámicas, sin duda, requieren para su impulso de nuevos proyectos culturales y de ocio que habrán de ser proyectadas con solidez. Asimismo, la movilidad en sus distintas modalidades tendrá que ser uno de los factores importantes para que la ciudad no se colapse desde dentro.*

*No quisiera pasar por alto el problema de la vivienda. En ese sentido, para que la presión de la demanda de la vivienda no prosiga subiendo exponencialmente los precios y se produzca la inflexión, la administración pública tendrá que hacer esfuerzos más allá de las viviendas protegidas.*

*Habrá que seguir impulsando con más intensidad, si cabe, también la regeneración de los barrios más degradados de la ciudad.*

*En definitiva, mil aspectos que hay que tener presentes para que Donostia pueda seguir ofreciendo a todos/as ,en el futuro, la calidad y el bienestar (ojalá que también sea el bienser) que todos deseamos.*

María San Gil Noain - PP

*María San Gil Noain - PP*

AUKERA BERRIA DONOSTIARENTZAT

Orain dela bi urte, Donostiak jarduera estrategiko bat finkatzeko behar zuen ibilbideari ekin genion. Zerbitzu alorrean Europako abangoardian kokatzea eta erreferente izaten jarraitzeko berritzeko gai den hiria lortzea zen helburua. Urte askotan horren alde borroka egin ondorenaskok gogoan izango dute- Plan Estrategikoa abian jartzea lortu genuen. Denon artean lortu nahi dugun hiria identifikatzeko eta definitzeko erabiliko dugu aipatu plana. Garai hartan Donostiaren etorkizunean bide berri bat ireki genuela uste dut.
Beste azalpenik eman gabe, Plan Estrategikoa hitzak, teknikoak, urrunekoak eta ilun samarrak dira jendearentzat. Aitzitik, Plan Estrategikoaren azpian planteamendu fisiko eta tekniko oso bat dago; unibertsaltasunera egokitu behar duen eta garapenean parte hartu behar duen hiri baten etorkizunari buruzko jarduera fisiko eta kontzeptualak gordetzen ditu bere barnean, ingurunearekin bat eginda ahalik eta etorkizun onena eraikitze aldera. Denontzat lehen mailako erronka da, gizartearen borondatea kudeatzeko ardura izan eta, hiritarrei egin dakiekeen mesede txarrena, onura pertsonala atera nahi dutenentzat ere bai. Donostiak, proiektu handi bat, hiriaren aurrerapenean jauzi garrantzitsua ematen lagunduko du, aurrera ateratzeko behar diren elementuak dituela uste dut. Hiri moderno bat gara, modernitate bokazioa duena eta nazioartean isla handia duena eta batez ere, industri potentzial handiko probintzia bateko hiriburua da. Talde esperientziak erakusten digun bezala, herritarrak eta instituzioak, ekimen publikoa eta pribatuak bat egiten dugunean hiriak aurrera egiten du eta nahiz eta ezartzen diren helburuak zailak izan lortu egiten direlako konbentzimendua daukat.
Plan Estrategikoa egun ezinbesteko oinarria da, Donostiak lehiakortasuna eta indarra berreskuratzeko landu behar diren erronkak aztertzen ditu. Baina, inplikazio handiagoa eskatu nahiko nuke aipatu Planean ezarri ditugun erronken alde benetan apustu egin dezagun. Gainera erronka berri horiek helburuak handitzea dakarte, hala nola, azpiegituren birmoldaketa. Honako proiektu hauen alde apustu egitea ezinbestekoa izango da: gipuzkoarrei gure hirira hurbiltzeko garaian beren autoa etxean uzteko aukera emango dien metroa, gure hiria Gipuzkoako metropoli bilakatzea era guztietako zerbitzuak eskainiz eta ez bakarrik aisialdiari dagozkionak baizik eta industri jarduera hobetzekoak ere bai, merkataritza eta turismo alorren susperraldia (Donostiaren garapenean ezinbesteko oinarriak), Abiadura Handiko Trena, Donostiako aireportua berritzea...
Edozein jarduera-ardatz hiriaren proiektu komun baten, ikuspegi estrategikoaren, bitartez sustatu behar dela konbentzituta nago, alderdien interesak eta interes politikoak alde batera utzita. Beren liderrek ezarrita duten etorkizuna baino hobea lor dezake hiri batek pluraltasunean txertatzeko ahalmena duten, arduratsuak diren eta ondo antolatutako hiritar sarearen bitartez esfortzu sozialak aurrera ateratzeko gai bada. Baina herritarren demokrazian sakontzea ez da erronka erraza eta hiritarren eta instituzioen arteko harremanetan arau aldaketak dakartza.
Donostiak historian zehar izan duen ospea berreskuratu behar du, baina ez zentzu nostalgikoan, baizik eta estatuan eta nazioartean erreferente bilakatu behar du berriro, azpiegituretan, garapenean, ongizatean, turismoan, garraioan, hau da, aurrerakuntzan lider bilakatu behar du. Bere baliabideetan, birsortzeko eta suspertzeko duen ahalmenean konfiantza izan behar du hiriak. Horiexek dira 2010ean Donostia askatasun, aurrerakuntza eta ongizatearen abangoardian kokatu nahi duen Plan Estrategikoaren erronka nagusiak.

*UN HORIZONTE NUEVO PARA DONOSTIA*

*Hace ahora dos años, iniciamos una andadura absolutamente necesaria para que Donostia-San Sebastián fijara una estrategia de actuación que le llevara a situarse en la vanguardia europea como una ciudad de servicios, que es capaz de reinventarse a sí misma para seguir siendo un referente. Después de muchos años de insistencia por nuestra parte -algunos se acordarán-, conseguimos poner en marcha el Plan Estratégico, un proyecto en el que, entre todos, identifiquemos y definamos la ciudad que queremos. Pienso que entonces supimos abrir un horizonte nuevo para el futuro de Donostia.*
*Dicho así, a secas, el término Plan Estratégico suena demasiado técnico, bastante lejano y farragoso para el gran público. Sin embargo, el Plan Estratégico encierra todo un planteamiento filosófico y técnico, de actuaciones físicas y conceptuales sobre el futuro de una ciudad que debe adaptarse a la universalidad, subir al vertiginoso tren del desarrollo y, en definitiva, plantearse el mejor de los futuros en consonancia con el entorno, partiendo de lo que se tiene para llegar a ser. Es uno reto de primer orden para todos, incluso para quienes encargados de gestionar la voluntad de la sociedad pretenden sacar, en el peor de los favores que se puede hacer a los ciudadanos, un rédito personal carente de todo sentido.*
*Estoy convencida de que Donostia cuenta con importantes elementos para llevar adelante un proyecto ambicioso que represente un salto cualitativo en su avance. Somos una ciudad moderna, con vocación de modernidad, que tiene una intensa proyección internacional y, sobre todo, es capital de una provincia con un gran potencial industrial. Estoy convencida, nuestra experiencia colectiva así nos lo demuestra, que cuando la ciudadanía y las Instituciones, la iniciativa pública y la iniciativa privada, nos ponemos de acuerdo para ir hacia delante, la ciudad progresa y se consiguen las metas fijadas por difíciles que se presenten. El Plan estratégico es hoy un pilar fundamental en el que se forjan retos de envergadura para que Donostia recobre la pujanza y competitividad que necesita. Ahora bien, me gustaría reclamar una mayor ambición para que desde el seno de dicho Plan se apueste decididamente por los importantes retos que tenemos que afrontar, y que exigen una amplitud de miras, tales como el replanteamiento de las infraestructuras, apostando firmemente por proyectos ambiciosos como un Metro que permita a los guipuzcoanos acercarse a nuestra ciudad sin utilizar el vehículo privado, el reto de convertir nuestra ciudad en la metrópoli de Gipuzkoa, ofreciendo toda clase de servicios, no solamente de ocio, sino destinados a mejorar la actividad industrial, la revitalización del sector comercial y el turismo, ejes fundamentales en el desarrollo de San Sebastián, la implantación del Tren de Alta Velocidad, la apuesta por modernizar el aeropuerto de San Sebastián, etc.*
*Estoy convencida de que cualquier eje de actuación debe ser impulsado desde una visión estratégica vinculada a un proyecto común de ciudad al margen de intereses políticos y partidistas. Una ciudad tiene muchas más posibilidades de lograr un futuro atractivo que la que marcan sus líderes si es capaz de comprometer esfuerzos sociales de una amplia base a través de una red de ciudadanos organizados, responsables y con una elevada capacidad de integración en la pluralidad. Profundizar en la ciudadanía democrática, sin embargo, no es un reto fácil y demanda una transformación considerable de las pautas de relación entre los ciudadanos y las instituciones.*
*San Sebastián debe recuperar el prestigio que históricamente ha tenido, no en el sentido nostálgico, sino en el de ser un referente nacional e internacional como ciudad líder en infraestructuras, en desarrollo, en bienestar, en turismo, en transporte, en definitiva, en progreso. La ciudad debe recuperar la confianza en sus propios recursos, en su capacidad de renacer y reinventarse a sí misma. Éstos son los retos de un Plan Estratégico que persigue situar a la Donostia del 2010 en la vanguardia de la libertad, el progreso y el bienestar.*

## Duñike Agirrezabalaga - EB

## *Duñike Agirrezabalaga - IU*

Donostiako Plan Estrategikoa aurkezteko agiria, zalantzarik gabe, erreminta ona da hiriburu gipuzkoarraren garapenerako. Hiritarren bizitza kalitatea hobetzea du helburu aipatu planak.

Baina, Plan Estrategikoa irakurri ondoren garrantzitsuena konpontzeke geratzen delako sentsazioa izan dezakegu, hau da, azken helburua lortzeko nola jokatu behar dugun eta erabili behar ditugun bitartekoak ez dira aipatzen. Proposamen askoren garapena espiral erara egiten da eta gai horretan interesa dutenek ez dituzte konponbideak aurkituko.

Agian, agiri hori egin dutenek proposamenei dagozkien konponbideak Plan Estrategikoko Batzorde Exekutiboak ematea nahi dute eta horregatik ez dituzte konponbideak aipatu.

Adibide bat jartzearren, hiritarren partaidetzari dagokiona aipatuko dut. "Hiritar batzuk horrelako gaietan interesatuak daudela eta hiritar multzo bat zorrotza" dela onartu ostean hiritarren partaidetza sustatu eta egituratu egin behar dela aipatzen du agiriak. Plan Estrategikoak honako erantzuna ematen dio: "hiritarren partaidetza estrategia nagusietako bat da". Baina agiriaren egile edo egileek Kordoba edo Rubi bezalako, batzuk aipatzearren, hirietan gauzatu den hiritarren partaidetza hori nola garatu behar den ez dute aipatzen. Beraz, honako galdera hau erantzunik gabe geratzen da: nola garatuko litzateke partaidetza hori eta Udalak ezarritako gune erabakitzailearekin zein harreman izango luke?

Kritika hau eginagatik ez dut agiriaren filosofia baztertzen, hausnarketa honen hasieran aipatu lez, erreminta ona da etorkizuneko Donostia imajinatzeko. Baina, agiri horrek ez du Ezker Batuko gizon eta emakumeek lortu nahi dugun Donostia solidarioa imajinatzeko proposamenik ematen.

*El documento redactado para presentar el Plan Estratégico de Donostia-San Sebastián es, sin duda, una buena herramienta para situar, en su justa medida, un posible desarrollo global de la capital guipuzcoana con el objetivo final de incidir en una mejora en la calidad de vida de sus habitantes.*

*Sin embargo, tras la lectura del Plan Estratégico queda la sensación de que faltan las más importantes claves respecto del cómo actuar y los medios necesarios e imprescindibles para alcanzar el fin último que se persigue. El desarrollo de muchas de las propuestas se realiza de modo espiral y concluye sin ese remate final que tal vez colme las expectativas del lector interesado en estas cuestiones.*

*Tal vez, esta laguna se corresponda con el propósito de quién o quiénes hayan elaborado este documento con la sabia intención de que sean los miembros de la Comisión ejecutiva del Plan Estratégico el que acometan las oportunas soluciones al corolario de sugerencias planteadas en el documento.*

*Por citar un ejemplo señalaría el referido al capítulo que aborda la participación ciudadana. Se alude a su impulso y vertebración tras reconocer que "existe en la ciudad una ciudadanía interesada y exigente" y la respuesta que se ofrece desde el Plan Estratégico es que "la participación ciudadana se considera como estrategia central...". No incide el autor o autora del documento sobre el cómo de esa participación ciudadana que ya es un hecho constatable y contrastable en ciudades como Córdoba o Rubí, por citar algunas. De ahí que quede sin contestar la pregunta: ¿cómo se desarrollaría esa participación y su entronque con el núcleo decisorio establecido en el Ayuntamiento?*

*No por esta crítica echo por tierra la filosofía del documento que, como decía al inicio de esta reflexión es una buena herramienta para tratar de imaginar la Donostia del futuro. Pero, sin duda alguna, este documento no reúne propuestas que permitan imaginarnos a esa Donostia solidaria por la que luchamos las mujeres y los hombres de Ezker Batua.*



Dario Garrido

# KALITATEAREN HIRIA CIUDAD DE CALIDAD

## CICCen proiektuaren alderdi positiboak Donostiarako

## *Aspectos positivos del proyecto del CICC para la ciudad de Donostia-San Sebastián*



Tabacalera-ren ikuspegia • *Vista panorámica de Tabacalera*

CICCen Donostiarako proiektuaren alde positiboak hiru talde handitan sar daitezke:

### SINBOLIKOA

CICCen proiektuak hirian nagusi den belle époque garaiko nortasuna gainditzen du. XX. mendea igarota, CICCen proiektuak Donostia gailurrean jarri nahi du XXI. mendean, kultur ekoizpen eta zabalkundeari dagokionez. Azken batean, hiria gure garaiko kultura bisualarekin (zinema, artea, fotografia, publizitatea, berrikuntza) lotzea da kontua, baita estetikarekin berarekin sukaldariek euskal sukaldaritzarekin egin dutena gauzatzea ere: guztiz erroturiko tradiziotik berritzea eta nazioartean prestigioa ematea, gisa horretan bertakoak ere harro senti daitezen.

### SOZIALA

CICCen proiektuak, halaber, besterik ere eskaintzen dio gizarteari: topagune bat, eztabaida-gunea, ikaskuntza eta jarduerak. Proiektuak bere baitan hartzen ditu, gainera, honakoxeak: plaza publiko berri bat sortzea, hirian auzo berri bat eraikitzea, kanporanzko toki bat baina bere baitara bihurtzen dena bertan gertatu behar duena zehaztu gabe. Azken batean, askatasuna, topagunea eta eztabaida-gunea. Orain 'sekretua' den tokian alegia, non hiritarrek horren jabe egin beharra duten bisitariarekin topo egiteko.

### EKONOMIKOA

CICCen jardueren nondik norakoak turismoa eta kultur ekoizpenarekin lotuta dagoen jarduera ekonomikoaren hazkundean beharko dira irakurri. Bilboko Guggenheim museoaren pareko handinahirik gabe, CICCen asmoa bisitari motibatuak nahiz jakin-mina dutenak erakarri eta asetzea da.

***Los aspectos positivos del proyecto del CICC para Donostia-San Sebastián pueden enumerarse dentro de tres grandes grupos:***

### *SIMBÓLICO*

*El proyecto del CICC materializa la intención de dotar a la ciudad de una nueva identidad más allá de la dominante "belle époque" actual. En una ciudad donde parece que, estéticamente, el siglo XX no ha sido, el proyecto del CICC desea situarla en la cresta del siglo XXI en términos de producción y difusión cultural. Se trata de asociar la ciudad con la cultura visual (cine, arte, fotografía, publicidad, innovación) de nuestro tiempo y hacer con la estética lo que los cocineros han hecho con la cocina vasca: innovar a partir de una tradición fuertemente implantada y popular, renovarla y dotarla de prestigio internacional, haciendo que sea motivo de orgullo local.*

### *SOCIAL*

*El proyecto del CICC significa un intento de dotar a la sociedad de un nuevo foro de encuentro, debate, disfrute, aprendizaje y actividad. El proyecto se asimila a la creación de una nueva plaza pública, un nuevo barrio en la ciudad, un lugar de donde se irradie hacia el exterior y que atraiga hacia sí, sin pretender determinar todo lo que tenga que ocurrir en él. Libertad y encuentro, intercambio y discusión. Un lugar ahora "secreto" del que la ciudadanía debe apropiarse para encontrarse con el visitante.*

### *ECONÓMICO*

*La incidencia de las actividades del CICC deberá leerse en el aumento de la actividad económica relacionada con el turismo y la producción cultural. Sin ambicionar el mismo impacto que el Museo Guggenheim ha tenido en Bilbao, el CICC desea posicionarse como una bandera que atraiga y satisfaga la curiosidad de visitantes motivados y curiosos.*

Bartomeu Marí
CICC proiektua • *proyecto CICC*



# Kreatibitatea eta berrikuntzaren hiria
## Ciudad de la creatividad y la innovación

Stanfordeko Unibertsitateak Donostiako Teknologi Parkean ezarri du bere teknologia interaktiboen garapenerako Europako gunea

*La Universidad de Stanford implanta en el Parque Tecnológico de San Sebastián su base europea para el desarrollo de tecnologías interactivas*

Zientzia eta teknologiaren esparruan erreferentea den Stanfordeko Unibertsitateak Donostiako Teknologi Parkea aukeratu du berriki Europako jardueren gune gisa. Bertan, gainera, Media X proiektu anbiziotsua garatzekoa asmoa du, teknologia interaktiboak ikertu eta garatzeko hain zuzen ere. Itzal handiko unibertsitate horrek, 25 Nobel saridunen sehaska denak, munduko lehen teknologi parkea eraiki zuen 1951n, Stanford Research Park hain justu, eta geroztik Silicon Valley ezagunaren bihotz-bihotzean dago.

Media X diziplina anitzeko ikerketa programa da, eta bere xedea teknologia interaktiboko hurrengo belaunaldia garatzea da. Hala, proiektu horretan garatzen ari diren hainbat ekimen pertsonek erabiltzen duten teknologiaren konplexutasuna erraztera bideratuta daude, gisa horretan horren erabilera naturalagoa izan dadin erabiltzailearen lehentasunak eta abildadeei loturiko komunikazio molde berrien garapenaren bidez. Horrek diziplina anitzeko ikerketa sare handi eta konplexua batzea esan nahi du medikuntza, konputazioa, hizkuntz prozesamendua, ingeniaritza edota musika bezalako alorretan.

Anbizio handiko programa hau bere mugetatik at zabaltzeko, Kaliforniako unibertsitate horrek jardun-gune bat izango du Kyoton (Japonia), non Asia aldeko ikerketak koordinatuko diren. Era horretan, AEBetan soilik, Media Xk Stanfordeko hamalau ikerketa sail eta zentro aurreratuenetakoak ditu, eta tartean lider diren honako enpresak daude: IBM, Motorola, Nicrosoft, NTT edota Philips; baita

*La Universidad de Stanford, referente mundial en el ámbito de la ciencia y la tecnología, ha establecido recientemente su base de actuación en Europa en el Parque Tecnológico de San Sebastián, con vistas a desarrollar su ambicioso proyecto Media X, encaminado a la investigación y desarrollo de tecnologías interactivas. Esta prestigiosa universidad, cuna de 25 Premios Nobel, fue la creadora en 1951 del primer parque tecnológico del mundo, el Stanford Research Park, desencadenando la creación y erigiéndose desde entonces en corazón del mundialmente famoso Silicon Valley.*

*El Media X es un nuevo programa de investigación multidisciplinar para el desarrollo de la próxima generación de tecnología interactiva. Las diferentes iniciativas que se desarrollan dentro de este proyecto están encaminadas a resolver las complejidades derivadas del uso de la tecnología por las personas, facilitando su utilización, haciendo que su uso sea mucho más natural mediante el desarrollo de nuevas formas de comunicación adaptadas a las preferencias y habilidades del usuario. Esto implica la conjunción de un amplio y complejo entramado de investigaciones interdisciplinares en áreas como la medicina, la computación, el procesamiento de lenguaje, la ingeniería o la música.*

*Para extender este ambicioso programa fuera de sus fronteras, la universidad californiana ha implantado también una base de actuación en Kyoto (Japón), desde la que se coordinarán las investigaciones en el área asiática. Sólo en EEUU, el Media X cuenta con la*



NASA, National Science Foundation edota AEBetako National Institute of Health erakundeak ere.

Horrez gain, aipatu bi erakundeen ondorena den Donostiako Teknologi Parkeak, Miramonen Media Xren instalazioak hartzeaz gain, Kaliforniako Palo Altoko Stanforden campusean operazio-gune bat ezarri du, gisa horretan Silicon Valleyko konexioak indartzeko, non eta ingurune paradigmatikoenean munduko teknologia berriei dagokienez. Gisa horretan, Hewlett–Packard, Sun, Yahoo, Google, Netscape edota Nike bezalako multinazionalak bertan sortu ziren, baita Internet, laserra, mikroprozesadorea edota GPS moduko beste teknologia batzuk ere.

Halatan, teknologia merkaturatzeko molde berriak sustatzeko edota elkarlanerako bideak zein enpresen eta ikerketa nahiz unibertsitate zentroen arteko trukea gauzatzeko, aipatu bi erakundeetako bakoitzak besteari lagunduko dio tokiko testuinguruan txertatzen; eta, gainera, eskueran izango dituzte euren instalazio aurreratuak nahiz azpiegitura telematikoak; era berean, ikerketa- nahiz enpresa-esperientzien elkarrekiko zabalkunde jarduerak eta konferentziak antolatzea hartu beharko dituzte euren gain.

Bestetik, Keith Devlin munduko matematikari handienetakoa da eta, horrez gain, Stanfordeko SCLIko zuzendari exekutiboa eta Media Xren fundatzaileetako bat da; era horretan, Donostiako Teknologi Parkea zergatik aukeratu duten aipatzerakoan, honakoxea nabarmendu zuen matematikariak: azpiegitura telematiko aurreratua, teknologia, unibertsitatea eta enpresekin dituen harreman handiak, Donostiaren bizi kalitaterako baldintzak eta, azkenik, parkeak interakzio teknologikoaren inguruan egin duen lanean erakutsitako espiritu berritzailea.

Gure iritziz, instalazio horiek zabaltzea garrantzi handiko gertakaria da Donostiarentzat, izan ere munduko sare zientifiko eta teknologiko aurreratuenetan areago barneratu da, eta horrek, jakina, berekin

*participación de los 14 departamentos y centros de investigación avanzada más destacados de Stanford, de empresas líderes como IBM, Motorola, Microsoft, NTT o Philips y de entidades como la NASA, la National Science Foundation y el National Institute of Health de los Estados Unidos.*

*Por su parte, el Parque Tecnológico de San Sebastián, fruto del acuerdo alcanzado entre las dos instituciones, además de acoger en Miramón las instalaciones del Media X, ha establecido a su vez una base de operaciones en el propio campus de Stanford en Palo Alto, California, con vistas a intensificar sus conexiones en Silicon Valley, el entorno más paradigmático de las nuevas tecnologías a nivel mundial. Multinacionales de la talla de Hewlett-Packard, Sun, Yahoo!, Google, Netscape o Nike, entre otras, y tecnologías como Internet, el láser, el microprocesador o el GPS nacieron y se localizaron en tan emblemático lugar.*

*Con el fin de promover nuevas formas de comercialización de tecnología, de establecer vías de colaboración de interés mutuo y de favorecer el intercambio entre empresas y centros de investigación y universitarios de ambos entornos geográficos, cada una de las dos instituciones introducirá y guiará a la otra en su entorno local y pondrá además a su disposición sus avanzadas instalaciones e infraestructuras telemáticas, previéndose también la organización de conferencias y eventos conjuntos de divulgación de experiencias investigadoras y empresariales de carácter innovador.*

*Keith Devlin, uno de los más famosos matemáticos a nivel mundial, director ejecutivo del CSLI de Stanford y co-fundador del Media X, manifestó que las razones que han llevado a su universidad a elegir como base en Europa el Parque Tecnológico de San Sebastián han sido su avanzada infraestructura telemática, sus intensas relaciones con el entorno tecnológico, universitario y empresarial, las condiciones de calidad de vida de la Ciudad y el espíritu innovador del Parque manifestado en su trabajo en la interacción tecnología-arte.*

Plan Estratégico 2* 11/3/04 19:04 Página 18



MediaX-en aurkezpena • *Presentación de MediaX*

Mauri Lazkano, Josu Jon Imaz, Keith Devlin, Manuel Cendoya

du prestigioa. Ildo beretik, lortutako akordioa aukera ezin hobea da AEBetako nahiz Europako proiektu eta enpresak Donostira erakartzeko, baita ezaupideak trukatu eta gure inguruko enpresa eta zentroek Silicon Valleyrekin nahiz Estatu Batuekin, oro har, harremanak izateko.

*En nuestra opinión, la inauguración de estas instalaciones suponen un hito de enorme trascendencia para nuestra Ciudad, al intensificar su engarce en las redes científicas y tecnológicas más avanzadas a nivel mundial, con el consiguiente prestigio que conlleva. Asimismo el acuerdo alcanzado representa una gran oportunidad tanto para la atracción de proyectos y empresas americanas y europeas hacia Donostia como para potenciar el intercambio de conocimiento y las relaciones entre empresas y centros de nuestro entorno con el área de Silicon Valley en particular y con los Estados Unidos en general.*

Manuel Cendoya
Donostiako Teknologi Parkearen zuzendari ohia
*Ex-Director del Parque Tecnológico de San Sebastián*

## Berrikutza, lehiakortasunean ezagutza eskualdeka transformatuz.
## *La innovación, transformando regionalmente el conocimiento en competitividad*

Gaur egun harreman ekonomikoetarako edozein antolakuntza edo ingurune bere baitan hartzen dituen zirkunstantziaren bat nabarmendu beharko bagenu, ziur aski etengabeko aldaketei erantzunen bat ematea izango litzateke… Hala, globalizazio hitzaren pean gertatzen ari diren aldaketa horien artean, gehien antzemango duguna honakoxea izango da: gaitasun produktiboak, alegia, esku-hartzaile berriei bideratzea, merkatuari dagokionez behintzat. Oker zeuden, beraz, Txina merkatu handia zela ziotenak; azken batean, itzelezko fabrika bat da, teknologia laster batean erdietsirik ekonomiaren momentu batean gaitasun produktiboei inoizko dimentsioa ematen diena. Bertan, gainera, muga produktiboek ez dakarte arazorik. Gertakari horiek industria konbentzionalak itxuragabetzen dizkigute

*Si hoy tuviéramos que destacar una circunstancia común que envuelve a cualquier organización o entorno de relaciones económicas, seguramente nos decantaríamos por la presencia de cambios permanentes a los que se debe dar respuesta.. Y entre estos cambios que bajo el término de globalización vamos a vivir mas intensamente, está el desplazamiento de las capacidades productivas hacia los nuevos intervinientes en los mercados. Se confundían quienes decían que China era un gran Mercado, mas bien es una inmensa Fábrica, que incorporando rápidamente tecnología, dota de dimensiones inéditas a las capacidades de producción en un momento de la economía, donde los límites productivos no son ya un problema. Estos acontecimientos nos desfiguran a las industrias convencionales y no hay otra forma de construir la respuesta que a través de la*

eta horri aurre egiteko modu bakarra berrikuntza da, nola eta ezagutzaren transformazio prozesua azkartuz, pertsonak eta enpresak ondo bilduz, eta horiek gauza berrietara aplikatuz.

Gisa horretan, lehiarako gaur egungo tresna berria Eskualde Berrikuntza da, iragan mendean azpiegitura fisikoak edota natur baliabideak izan ziren bezalaxe. Eskualde batean berrikuntzaren ikuspegi kolektiboaren beharra izateak honakoa eskatzen du: heziketa sistemen ikusmolde egokia, gure enpresek berrikuntzarako gaitasuna izatea, jakintza iturrietara jo ahal izatea eta politika publikoak abain jartzea. Berrikuntzarako, ordea, ez da aski ezaupideak eskueran izatea, baldin eta ezagutza ekonomikoki ustia dadin gaitasun eta kultura soziala txertatzen ez badira. Era berean, enpresa-ereduek operazio eta produkzio ikuspegia izan behar dute, jakintza kolektiboaren balorazio eta erabilera intentsiborantz joan ahal izateko.

Bestalde, berrikuntzatik abiatuta lehiakortasuna lortzeko bigarren pausoa honako alorretan gauzatzen da: enpresa-ikusmoldeko aldaketa mentaletan eta barne ingurune lehiakorrak eraikitzera bideratuta dauden politika publikoetan. Enpresa-antolakuntza balioa duten jarduerak garatzen dituen giza kolektiboa da, eta horiek inguruko eragile guztiekin trukatu behar dira, nahiz eta bezeroak, hornitzaileak, akziodunak, enplegatuak edota gertuko ingurune sozialekoak izan. Hala, truke horren bitartez produktuetan, zerbitzuetan, informazioan, formakuntzan, emaitzetan eta beste hainbat kontutan balio handiagoa izanik, horretantxe oinarrituko da enpresaren jarraipena. Enpresak aurrera egiteko, egunero egin eta trukatzen dena hartu behar da kontuan, baina etorkizuna segurtatzeko jakin egin behar da zer egin eta berria den horri nola egokitu; hau da, berrikuntzarako gaitasuna izatea. Hala, bada, "egiten jakitea" lantzea da transfomatzeko bidea, eta horrek berrikuntzarako joera izatea esan nahi du, nola eta egun dauzkagun ezaupideei eta etorkizunari balioa emanez. Azken batean ezaupideek, enpresari dagokionez, aldatzeko edo, zehatzago esanda, berritzeko balio dute. Eskualde bati buruz ere horixe bera esan dezakegu. Hala, eskualde batek dituen ezaupideek berrikuntza gauzatzeko balio dute, eta ez bakarrik modu batean edo bestean zaharkiturik geratu diren baliabideak beste jarduera batzuekin berritzeko. Hala, dagoen ezagutzaren sistematizazioak hainbat ekoizpen edo zerbitzu prozesutan bere erabileraren esanahi berri posiblea hauteman eta baloratzeko bidea ematen digu; eta, gisa berean, ezagutza berriaren behar berriak hautemateko balio dezakete. Ezaupideak menperatu eta garatzeak ezinbesteko oinarria da pertsona-, enpresa- eta eskualde-berrikuntzarako. Berrikuntza, beti, ezagutza eta lehikortasunaren artean dago, eta denboran zeharreko elkarreragin dinamikoaren bitartez, gizabanakoek, enpresek eta eskualdeek aurrera egiten dute.

*innovación, acelerando el proceso de transformación del conocimiento y saber hacer acumulado en las personas y las empresas, aplicándolos a cosas nuevas.*

*La Innovación Regional es hoy el nuevo instrumento de competitividad, como lo pudieron ser las infraestructuras físicas o la presencia de recursos naturales en el siglo pasado. Esta necesidad de adopción de una visión colectiva de la innovación en una región, requiere de buenos enfoques de los sistemas educativos, de la capacidad de innovación de nuestras empresas, del acceso a las fuentes de conocimiento y de las correspondientes políticas públicas. Pero para innovar no basta con el conocimiento accesible si no se introduce una capacidad y cultura social de explotar económicamente el conocimiento y en la que los modelos de empresa pasan de orientarse de la visión operativa o productiva, hacia la valoración y el uso intensivo del saber colectivo.*

*El segundo paso para lograr competitividad desde la innovación, está en cambios mentales en la visión empresarial y en las políticas públicas hacia la construcción de entornos competitivos internos. Una organización empresarial es un colectivo humano que desarrolla actividades de valor a intercambiar con todos los agentes que la rodean, bien sean clientes, proveedores, accionistas, empleados y entorno social próximo. Y del valor creciente de estos intercambios en forma de productos, servicios, información, formación, resultados, ... depende la continuidad de la empresa. La empresa se mantiene por lo que hace e intercambia cada día, pero garantiza su futuro por lo que sabe hacer y como es capaz de aplicarlo a lo nuevo, es decir por su capacidad de innovar. Explotar el "saber hacer" es el camino para transformarse, que no es otra cosa que innovar dando valor a futuro al conocimiento que se posee en la actualidad.*

*En esencia el conocimiento en la empresa sirve para cambiar o, como diríamos más acertadamente, para innovar. Esto mismo podríamos decir a nivel de una región. El conocimiento que se posee en una región debe servir para innovar y no sólo para reponer con nuevas actividades aquellos recursos que por un motivo u otro se hacen obsoletos. La sistematización del conocimiento disponible nos permite percibir y apreciar el nuevo significado posible de su uso en diversos procesos de producción o de servicios, y nos sirve también para detectar las necesidades previsibles de nuevo conocimiento. El dominio y desarrollo de los conocimientos constituye el sustrato básico para la innovación personal, empresarial y regional. La innovación siempre está situada entre el conocimiento y la competitividad, y a través de su mutua interacción dinámica a lo largo del tiempo, los individuos, las empresas y las regiones se desenvuelven y progresan.*

Juan José Goñi Zabala
Ingeniaritza Industrialean doktore - Doctor Ingeniero Industrial
*Director. Innovación y Proyectos Estratégicos I B E R M A T I C A* Berrikuntza eta Proiektu estrategikoak.
*www.ibermatica.com*

# enpresa berritzailea *empresa innovadora*

## INCIDE S.A.

### Jarduera

INCIDE S.A. ziurkuitu integratuak (ASIC) diseinatzeaz arduratzen da, eta bi esperientzia alorretan zentratzen da, batez ere: diseinu analogikoan eta irratifrekuentzien (wireless) sistemen diseinuan. Hala, proiektu bakoitzaren garapen fluxuak, hain zuzen, espezifikazioak sortzeko etapatik txiparen azken layout delakoa diseinatu (horren prototipatua eta karakterizazio) arteko prozesua hartzen du bere baitan, baita siliziozko labeetan seriean fabrikatzea ere.

### Proiektuak

Azken urte hauetan INCIDEk hainbat proiektu garatu ditu multinazional garrantzitsuentzat, esaterako Siemens, Infineon Technologies edota Hitachirentzat. Atzerriko multinazional horiekin duen harremana dela eta, INCIDEk bere zerbitzu eta diseinuen %100 esportatzen du. Gaur egun, konpainia hainbat proiektu garatzen ari da, eta horien artean nabarmentzekoa da ACIC delakoen neurrineurrirako garapena ABB Automation Systems konpainiarentzat; era berean, komunikazio sistema bat garatzen du EADS Europako partzuergoarentzat.

### Parte-hartzea:

Incide S.A.n parte-hartzea dutenak, bestalde, honakoxeak dira: CEIT, bere kide fundatzailea eta egungo zuzendari orokorra, eta TTT enpresa taldea.

### Bezeroak:

Erdieroale alorreko enpresa garrantzitsuenak: Infineon Technologies, Hitachi, Texas Instruments eta Siemens dira.

## *INCIDE S.A.*

### *Actividad*

*INCIDE S.A. se dedica al diseño de circuitos integrados (ASICs) con especial focalización en dos áreas de experiencia: el diseño analógico y el diseño de sistemas de radiofrecuencia (wireless). El flujo de desarrollo de cada proyecto cubre desde la etapa inicial de generación de especificaciones hasta el diseño del layout definitivo del chip, su prototipado y caracterización, así como la fabricación en serie en fundidoras de silicio.*

### *Proyectos*

*Durante estos últimos años INCIDE ha desarrollado diferentes proyectos para importantes clientes multinacionales como Siemens, Infineon Technologies o Hitachi. Debido a la relación con este tipo de multinacionales extranjeras, INCIDE exporta el 100% de sus servicios y diseños. En la actualidad, la compañía está desarrollando diversos proyectos, entre los que destacan el desarrollo a medida de sendos ASICs para la compañía ABB Automation Systems, así como un sistema de comunicación para el consorcio europeo EADS.*

### *Participación*

*Incide S.A. está participada por CEIT, su Socio fundador y actual Director General y por el Grupo Empresarial TTT.*

### *Clientes*

*Las más importantes empresas del sector de los semiconductores: Infineon Technologies, Hitachi, Texas Instruments y Siemens.*


Zuzendaritza eta kontaktua
*Dirección y contacto*

*INCIDE S.A*
Zuzendaria • *Director:*
*Javier Hernández*

Zuatzu Enpresa Parkea
*Parque Empresarial Zuatzu*

*Edificio Urgull*
*20018 Donostia • San Sebastián*
*Tel.: 943 317 378*
*Fax.: 943 317 800*
*info@incide-semi.com*
*www.incide-semi.com*

Plan Estratégico 2* 11/3/04 19:04 Página 21



# Pertsonen Hiria Ciudad de las Personas-Cohesionada

Santiago Morales: Ecuador Etxea

"Donostian bada jende ireki eta solidarioa, baina zaila da bertan geratzeko modurik ere ez duten etorkinen presentzia"

*"En Donostia hay gente abierta y solidaria pero se torna difícil la presencia de un inmigrante cuando ni siquiera tiene condiciones para poder quedarse"*

Orain dela bost urte jarri zinen bizitzen Donostian, eta harrezkeroztik zure herrikideen bizimodua hobetzen saiatu zara buru-belarri. Santiago Moralesen arabera, integrazioa posible da eta, horretarako, etorkina lan-elementutzat ez hartzea proposatzen du, gisa horretan haren kultura eta balioak baloratzen has gaitezen.

*Está afincado en Donostia desde hace cinco años y desde entonces no ha cesado en su empeño de mejorar su situación y la de sus conciudadanos. Santiago Morales cree que la integración es posible y para ello propone que se deje de ver al inmigrante sólo como un elemento de trabajo para empezar a valorar su cultura y sus valores.*

## Zein da Donostiako egoera inmigrazioari dagokionez?

Europara eta, era berean, Donostiara iristen den inmigrazioa toki horietan jaiotako biztanleek hartu nahi ez dituzten lanbideak hartzera etortzen da. Donostiako inmigrazio maila ez da beste hiri batzuetakoa bezainbestekoa; hala, bada, fenomeno berria dela esan daiteke. Duela zortzi urtez geroztik magrebtar zenbait etorri dira eta duela bost urtez geroztik, berriz, Ekuador eta Kolonbiako jendea.

## *¿Cuál cree que es la situación actual de Donostia con respecto a la inmigración?*

*La inmigración que llega a toda Europa y también a Donostia viene, sobre todo, a cubrir mano de obra que no asumen los nacidos aquí. Donostia no llega a los niveles de inmigración de otras ciudades, podría decirse que es algo nuevo. Desde hace unos 8 años llegan contados magrebíes y desde hace 5, sobre todo, gente de Ecuador y Colombia.*

## Donostiak abegi ona egiten die etorkinei, ala baztertu egiten ditu?

Bi joera antzematen dira. Batetik, jende ireki eta solidarioa dago, baina errealitatea bestelakoa da. Etorkinek Donostian presentzia izatea zaila da, bertan geratzeko aukerarik ere ez dute eta; azken batean ez dute etxebizitzarik, ezta erregularizaturik ere enplegua.

## *¿Donostia es una ciudad que acoge o rechaza a la población inmigrante?*

*Esto se puede medir en dos parámetros. Por un lado, hay gente abierta, solidaria y, sin embargo, en contradicción está la realidad. Se torna difícil la presencia en Donostia de un inmigrante cuando no tiene condiciones para quedarse, cuando no tiene un piso ni regularizada su situación de empleo.*



## Zein dira alde onak (laguntzak, politika sozialak) eta alde txarrak (arazo ohikoenak) Donostian?

Etorkin kolektiboek areago integratu behar dute, modu horretan zer-nolako laguntzak-eta dauden jakiteko. Bestalde, erakunde ofizialek eta Gobernuz Kanpoko Erakundeek kolektibo horri eman diezaioketen informazioa areago dinamizatu behar lukete. Informazioa ez da behar bezala bideratzen, ez da esperientzien trukea antzematen. Gainera, burokraziak berak edozein laguntza edo prozesu atzeratzen du. Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak Etorkinentzako Harrera Bulegoa ezarri du, baina zerbitzu horiez baliatzeko derrizgorrezkoa da erroldatua egotea. Zuzenean edo zeharka, erroldatuta ez dagoen jendea baztertzen da.

Aurreneko lana egoera legala konpontzea da, baita etorkinek etxebizitza duin baterako bidea izatea ere. Etxebizitza gabeziak, jende askok elkarrekin bizi beharra dakar. Horrez gain, garrantzitsua da aisialdi-guneak sortzea. Hala, Gipuzkoako Futbol Federazioak Ekuador eta Kolonbiako kolektibo bati Kontxako Txapelketan parte hartzen utzi dio, ez dugu behar bezala entrenatzeko tokirik, ordea. Gisa horretako gabezia ugari ditugu.

## *¿Cuales considera que son los principales puntos débiles (problemas más frecuentes) o fuertes (ayudas, políticas sociales) de la situación de la inmigración en Donostia?*

*Hace falta más integración por parte de los mismos colectivos de inmigrantes, para conocer las ayudas que existen, etc. Y por otro lado los organismos oficiales, las ONG´s deberían dinamizar más la información que pueden ofrecer a este colectivo. No se canaliza bien esta información, no se da un intercambio de experiencias. Además, la burocracia dilata cualquier ayuda o proceso. El Gobierno Vasco ha instalado una Oficina de atención al inmigrante pero hay que estar empadronado para poder acceder a sus servicios. Directa o indirectamente se está marginando a gente que no está empadronada.*

*Lo primero es arreglar la situación legal y que el colectivo de inmigrantes pueda acceder a una vivienda digna. La falta de pisos hace que muchas personas tengan que convivir juntas. Además, es importante crear espacios de ocio. La Federación Guipuzcoana de Fútbol nos ha permitido participar en el Campeonato de la Concha a un colectivo de Ecuador y Colombia, pero no tenemos un lugar apropiado para entrenar. Nos encontramos con muchas limitaciones de este tipo.*

### Zenbat ekuadortar bizi dira Donostian?

Donostian 500 bat bizi dira eta Gipuzkoan, berriz, 1.000tik gora. Gipuzkoan den inmigrazioari dagokionez, 4.000 lagunek osatzen dute multzo hori eta %50 egoera irregularrean omen daude. Era horretan, Donostiako kolektibo nagusia Latinoamerikakoa da, eta atzetik Marokokoa du. Gisa berean, Latinoamerikako etorkinentzako bi organizazio daude: Esperanza Latina eta geurea, Ecuador Etxea hain zuzen.

### EAEko beste hiri batzuen aldean zein egoeratan dago Donostia?

Aldundiaren eta Udalaren oinarrizko errentaren inguruko laguntzak oso urruti daude errealitate izatetik, izan ere tartean burokrazia eta egiten den analisi partziala daude. Aldeko txostenak gutxitan izaten ditugu eta oztopoak, berriz, sarri askotan.

### Nola hobetu daitezke ahulguneak? Ba al da proiekturik abian?

Ecuador Etxean hainbat proposamen egin dizkiegu erakundeei etorkinak gizartean erabat integra daitezen. Egoera ekonomikoa dela-eta gaude hemen, baina gizarteak ere atertazen dio etekina gure presentziari. Hala, etorkin irregularrak erregularizatuz gero, Estatua eta bere populazioa ere onuradun irtengo litzateke. Gainera, egindako azterketek inmigrazioaren beharra azpimarratzen dute, gizartearen zahartzea dela medio.

Azken batean, garrantzitsua da etorkina lan-elementua soilik ez dela jabetzea. Geure kultura eta balioak ditugu, eta horiek gizarteratzea gustatuko litzaiguke ezaupideak, gastronomia, musika eta gisakoak partekatzeko. Horrelakoxe ekimenak jarri behar dira abian.

### Zer jardunbide ditu Ekuadortarren Elkarteak?

Duela urtebete osatu genuen elkartea, baina gure Estatutuak orain dela hilabete onartu dira. 70 kide gara eta 100dik gora daude sartzear. Gizartean integratu nahi dugu eta ez dugu bazterturik geratu nahi. Hala, diru-laguntza behar dugu bulego bat izateko eta horren bitartez guri laguntzeko prest dauden etorkin eta bestelakoek informazio- eta lotura-gunea izan dezaten.

### Donostiako Plan Estrategikoak inmigrazioaren zein alorretan egin behar luke ahalegina?

Plan Estrategikoa hiri berria aurrerantzean izango denaren azterketa orokorra den aldetik, inmigrazioa bera hobetu beharreko errealitatetzat hartu behar luke.

### *¿Cuántos ecuatorianos residen en Donostia?*

*En Donostia unos 500, en toda Gipuzkoa más de 1000. Se calcula que la inmigración total en Gipuzkoa asciende a 4000 personas y se estima que de ellas el 50% está en situación irregular. El mayor colectivo de inmigrantes en Donostia es el latinoamericano y después el marroquí. Hay dos organizaciones de inmigrantes latinoamericanos: Esperanza Latina y la nuestra: Ecuador Etxea.*

### *¿Comparando con otras ciudades de la CAV, en qué situación se encuentra Donostia?*

*Las ayudas de renta básica a través de la Diputación y el Ayuntamiento distan mucho de ser una realidad por la burocracia y por el análisis parcial que se hace de cualquier realidad. Pocas veces encontramos informes favorables y muchas obstáculos.*

### *¿Cómo podrían mejorarse las debilidades? ¿Existe algún proyecto en marcha?*

*En Ecuador Etxea hemos realizado una serie de propuestas a las instituciones a fin de poner sobre la mesa asuntos importantes para una verdadera integración del inmigrante en la sociedad. Estamos aquí por una situación económica pero la sociedad también se beneficia de nuestra presencia. Al regularizar a inmigrantes irregulares también beneficiamos al Estado y a su población. Además los estudios señalan la necesidad de la inmigración en Europa para frenar el envejecimiento de la población*

*Es importante tener en cuenta que el inmigrante no sólo es un elemento de trabajo. Tenemos una cultura y unos valores que nos gustaría que conociera la sociedad en general para ir compartiendo conocimientos, la gastronomía, la música... hay que poner en marcha iniciativas de este tipo.*

### *¿Qué actuaciones lleváis a cabo desde la Asociación de la Comunidad Ecuatoriana?*

*Estamos constituidos desde hace un año aunque legalmente hace un mes han aprobado nuestros Estatutos. Somos 70 socios y 100 más están a punto de entrar. Queremos integrarnos en la sociedad y no ser dos y automarginarnos. Necesitamos una subvención para tener una oficina que sirva de información y de nexo de unión para otros inmigrantes y personas que estén interesadas en ayudarnos.*

### *¿En qué aspecto, relacionado con la inmigración, debería incidir el Plan Estratégico de Donostia?*

*El Plan Estratégico como estudio general de lo que será una nueva ciudad, debería tener en cuenta a la inmigración como un colectivo con una realidad que hay que mejorar.*

Plan Estratégico 2* 11/3/04 19:05 Página 25








# LOTURA EGOKIAK DITUEN HIRIA CIUDAD RELACIONADA

## Hiri publikoa, hiri jasangarria. Donostiako higikortasunari buruzko oharrak.

## *Ciudad pública, ciudad sostenible. Apuntes sobre movilidad en San Sebastián*

Azken hamarkadan, gure hirian hainbat neurri hartu dira auto pribatuak gune publikoan gutxiago ibil daitezen. Horren erakusgarri dira oinezkoentzako guneak, espaloiak zabaltzea, garraio publikorako gordetako erreia, oinezkoaren aldeko lehentasun aldaketak, bidegorri sarea eta gisakoak.

Politika hori 1991ko Plan Orokorraren Aurrerapenaren txostenean gogoetagai izandako higikortasun planteamenduetatik dator. Hala, horiek martxan jartzeak polemika eta eztabaida publiko ugari eragin ditu: momentu aipagarrienak 1993ko zirkulazio eskema aldaketa, Bulebarraren eta Bilbo plazaren arteko oinezkoentzako obrak eta Kontxako bidegorria izan dira.

Prozesu horrek guztiak gune publikoak hobetzeko balio izan du, izan ere oinezkoentzako sare bat dago, bizikleta ere garraiotzat erabiltzen da eta, era berean, garraio publikoaren erabilera-maila ona da. Ildo beretik, autoak aparkartzeko tokia handitu da hiriaren erdialdean eta, horrez gain, motor gaineko trafikoak gora egin du bai tokiko trafikoan, bai metropoli-barrutian (hemen bereziki).

Hau da, pentsakera berdea gailendu da, baina hala ere autoaren erabilerak ez du atzera egin; aitzitik, gero eta gehiago erabiltzen da. Nola liteke hori? Azken batean, higikortasunak gora egin du, oro har. Hala, bada, pertsonako egiten diren desplazamenduak ugaritu egin dira. Era horretan, etxetik lanerako ohiko bidaiatik ibilbide konplexuago batera igaro gara: etxea-lantokia-erosketak-aisiladia… Eta haurrak ere ez daude geldi: ikastolara, musika-eskolara, kirola egitera…

En nuestra ciudad hemos aplicado en la última década algunas medidas para reducir la ocupación del espacio público por el automóvil privado. Peatonalización de calles, ampliación de aceras, extensión de carriles reservados para el transporte público, cambios de prioridad a favor del peatón, construcción de una red de bidegorris, etc.

El inicio de estas políticas se sitúa en la reflexión sobre movilidad que tuvo lugar durante la elaboración del Avance del Plan General de 1991. Su puesta en marcha ha dado lugar a numerosas polémicas y debates públicos cuyos momentos más destacables fueron el cambio de esquema de circulación en 1993, las obras de peatonalización del eje Boulevard-plaza de Bilbao y la construcción del bidegorri de la Concha.

Este proceso ha servido para mejorar los espacios públicos con una red de itinerarios peatonales, reintroducir la bicicleta como modo de transporte y mantener un buen nivel de uso del transporte público. Paralelamente se han incrementado las plazas de aparcamiento para turismos en el centro de la ciudad y se ha registrado un constante incremento en el tráfico motorizado, tanto en los tráficos locales como especialmente, en los metropolitanos.

Es decir, han ganado los modos "verdes" pero el automóvil no ha retrocedido, al contrario su uso se ha incrementado. ¿Cómo es posible esto?. Simplemente porque la movilidad general ha crecido. El número de desplazamientos por persona al año se ha incrementado. Del clásico viaje domicilio-trabajo se está pasando a un modelo más complejo: domicilio-trabajo-compras-ocio… Y a los niños, no los dejamos quietos: a la "ikas", a música, a hacer deporte, a …



Datozen urteei dagokienez, jardunbide jasangarri horiek autoarekin ariko dira lehian. Hala, bitxia bada ere, eztabaida teorikoa konponduta dago. Hainbat eta hainbat inkestatan hiritarrek oinezkoentzako guneen alde daudela erakutsi dute; baita bidegorrien alde ere, eta horretaz aparte autoentzako guneak murriztu nahi dituzte. Hori guztia praktikan jartzeko orduan, ordea, agerian geratzen dira gure kontradikzioak, eta autoa "behar izaten" dugu.

Hori hala izanik, konponbidea honakoxea litzateke: desplazamendu kopurua murriztu eta egiten direnak ahalik eta gutxien egitea autoz.

Nola, ordea? Horren oinarria hirigintza eta zoluaren erabilera da. Hobe hiri trinkoa, sakabanatua baino. Hobe jarduera orekatuak espezializatuak baino. Etxebizitza, azken batean, lantokiarekin lotuta: oinez, bizikletaz edota garraioa publikoa hartuta. Edo besterik ez bada, autoz baina propio lagun-taldea bilduta.

Azken finean, kalitatezko gune publiko bat pasieran ibiltzeko gogoa pizten duena; halaber, kale-errepideak berrikusi behar dira bizikletaz nahiz garraio sistema publiko on batez baliatzeko.

Hala, bada, goza dezagun gure hiriaz kopeta belzten diguten ke eta zaratak alde batera utzita; kale-enparantzek izan dezatela erabilera "publikoa" auto "pribatuei" aurre egiteko.

En los próximos años este duelo modos sostenibles "versus" automóvil privado seguirá presente. Curiosamente el debate teórico está resuelto. En repetidas encuestas la ciudadanía se muestra favorable a peatonalizar, a los bidegorris y a reducir los espacios destinados a los coches. Al pasar a la práctica afloran nuestras contradicciones y todos "necesitamos" el coche.

La "solución" a los problemas de la movilidad pasa por dos vías: reducir el número de desplazamientos y conseguir que los que se hagan se realicen en menor medida en coche.

¿Y cómo?. La base está en el urbanismo y en los usos del suelo. La ciudad compacta mejor que la ciudad diseminada. La distribución de actividades mejor equilibrada que especializada. La vivienda bien conectada con el lugar de trabajo: andando, en bici o en transporte público. A una mala, en coche compartido.

Sobre esta base, un espacio público de calidad para invitar al paseo, una ordenación del viario que posibilite el tránsito de bicicletas y un buen sistema de transporte público.

Y a disfrutar de nuestra bella ciudad sin malos humos, sin ruidos y con nuestras calles y plazas dedicadas al "público" y no a los vehículos "privados".

*José A. Arrate y Josu Benaito Villagarcía*
Higikortasun Zuzendaritza
*Dirección de Movilidad*

Plan Estratégico 2* 11/3/04 19:05 Página 28

# DONOSTIAKO PLAN ESTRATEGIKOAK WEB ORRIA HOBETU DU.

## EL PLAN ESTRATÉGICO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN MEJORA SU PÁGINA WEB.

Donostiafutura.net-ek formatu berria eta eduki osoagoak ditu.

*Donostiafutura.net tiene nuevo formato y contenidos más completos.*



Donostiako Plan Estrategikoak orain murgilduta dagoen prozesu berrira egokitu du web orria. Hala, datozen hilabeteetan hiriaren proiektuak zehatzuko dira, eta hiritarrek eurek parte har dezaten **Ideien Bankua** prestatu da, gisa horretan donostiarren proposamenak idatzita biltzeko. Tresna horren berezitasuna erabiltzaileek eurek gustuko duten ideiaren alde botoa emateko aukera da; era berean, ranking halako bat dago ondoen baloratutako ideien ingurukoa. Gainera, atal hori gaika edota egunaren arabera kontsulta daiteke.

Donostiafutura.net parte hartzeko eta komunikatzeko tresna da. Horregatik, **Planaren Gida**n Plan Estrategikoaren bilakaerari buruzko prozesu guztia bertatik bertara jarrai dezakete erabiltzaileek. Behin Plana zehazturik eta horren bilakaeraren berri izanik, **Nola dago?** atalean 4 Ardatz Estrategiko dituen taula topatuko dugu, eta bertan Helburuak, Estrategiak eta Proiektuak kontsultatu ahal izango dira. Modu grafiko eta sinple horretan, hain zuzen, erabiltzaile orok Plan Estrategikoaren prozesuaren inguruko nondik norakoaren berri izango du, harik eta hiriaren esparru jakin bat hobetzen duen proiektua proposatzen den arte.

Donostiafutura.net prentsa-bulegoa da, halaber. Hala, **Komukazioa** atalean Plan Estrategikoari buruzko albisteak aurki daitezke eta, gisa berean, hiriko adituei egindako elkarrizketak azaltzen dira. Irudien galerian, ostera, egindako prentsaurrekoen edota publizitate kanpainaren argazkiak ikus daitezke, baita lan-taldeek egin dituzten hainbat bilera ere. Horrez gain, jarduera-agendak eta Plan Estrategikoarekin lotuta dauden artikuluek osatzen dute atal hori, eta edozein erabiltzaile edo komunikabide jar daiteke harremanetan prentsa-bulegoarekin, posta elektronikoaren bidez.

**Dukoteka** atalean bestalde, nobedadea izan ez arren, kontsulta osatu egiten da. Donostiako Plan Estrategikoak sortzen ari diren agiri ofizialak web orrian biltzeari ekin dio hasieratik bertatik. Orain, gainera, liburutegi birtual bat ere badago Plan Estrategikoa bera baliatu den hainbat argitalpen interesgarriren erreferentziaz osatua.

Horrez gain, donostiafutura.net-eko sail batek Donostiako Plan Estrategikoko **Buletinei** egiten die erreferentzia. Horiek, gainera, eztabaidatzen ari denaren muina biltzen dute tarteka, interesa duten guztiek hiriak zer norabide hartu duen jakin dezaten. Izena emanda, aurreko zenbakietako agiriak kontsultatzeko moduan ere izango zara.

Azkenik, donostia.futura.net-en edukien berri izateko orokorrean, **Bisita Gidatua** atalera jo daiteke. Hori, azken batean, Donostiako Plan Estrategikoaren web gunean dagoen guztia jakiteko modu sinple eta azkarra da.

*El Plan Estratégico de Donostia-San Sebastián ha adaptado su página web al nuevo proceso en el que está inmerso. En los próximos meses se definirán los proyectos de la ciudad y para lograr la participación de los ciudadanos se ha preparado un **Banco de Ideas** en el que los donostiarras pueden dejar por escrito todas sus propuestas. La particularidad de esta herramienta es que, además, los usuarios pueden votar sus ideas preferidas y se establece así un ránking de las mejor valoradas. Además, este apartado se puede consultar por temas o por fechas.*

*Donostiafutura.net es una herramienta de participación y de comunicación. Por eso, en **Guía del Plan** se ofrece a los usuarios la posibilidad de conocer de cerca todo el proceso que ha desarrollado el Plan Estratégico. Tras definir y conocer la evolución del Plan, en **¿Cómo está?** se puede encontrar una tabla con los 4 Ejes Estratégicos y se pueden consultar los Objetivos, las Estrategias y los Proyectos. Así, de una manera gráfica y muy sencilla cualquier usuario puede hacerse una idea de todo el proceso que el Plan Estratégico lleva a cabo hasta llegar a la proposición de un proyecto que mejore un ámbito concreto de la ciudad.*

*Donostiafutura.net es a la vez un gabinete de prensa. En la sección **Comunicación** se puede acceder a las noticias que genera el Plan Estratégico y a las entrevistas con los expertos de la ciudad. En la Galería de Imágenes se pueden ver las fotografías de las ruedas de prensa celebradas o de la campaña de publicidad, así como las diversas reuniones que han mantenido los grupos de trabajo. Una agenda de actividades y un repaso a los artículos relacionados con el Plan Estratégico completan esta sección donde además cualquier usuario o medio de comunicación interesado puede ponerse en contacto con el gabinete de prensa a través de la dirección de email.*

*El apartado **Docuteca** no es una novedad pero en esta nueva página se completa y facilita su consulta. El Plan Estratégico Donostia-San Sebastián ha apostado desde el principio por recopilar en la página web los documentos oficiales que va generando. Ahora además se incluye una biblioteca virtual con referencias a diferentes publicaciones interesantes que han servido de documentación al Plan Estratégico.*

*Uno de los apartados de donostiafutura.net hace referencia a los **Boletines** del Plan Estratégico Donostia-San Sebastián. Estos recogen periódicamente la esencia de lo que se está debatiendo para llevarlo a tu correo electrónico. Se trata de un servicio gratuito para todos aquellos interesados en saber hacia dónde camina la ciudad. Aquí no sólo podrás suscribirte, además tendrás la oportunidad de consultar los documentos de los números anteriores.*

*Para conocer a primera vista el contenido de donostiafutura.net se puede acceder a la Visita Guiada, una forma sencilla y rápida de saber todo lo que hay en la web del Plan Estratégico de Donostia-San Sebastián.*